



2030 HELBURUA

Bermatu kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoan parte hartzea denei

Hezkuntza tresnarik boteretsuena da pobrezia-aren eta horren ondorio suntsitzaileen aurka borrokatzeko eta gizarte bidezkoago bat lortzeko.

Baina, azken urteetan aurrerapenak egin diren arren, **265 milioi neska-mutil baino gehiagok eskolatu gabe jarraitzen du eta 10etik 6k ez du oinarrizko ezagutzarik irakurketan eta matematikan.**

Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) desberdinen inguruko lanarekin jarraituz, gure erakunde solidarioek GIH 4ri buruz gogoeta egitera bideratu nahi dute ikasturte honetako kanpaina. Horren helburu nagusia **izanik 2030era arte hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan eta pertsona guztientzat ikaskuntza aukerak sustatzea.**

Izan ere, etorkizun iraunkorra eraikitzeko, denok balio dugu.

 **GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**

Pertsona guztientzako hezkuntza inklusibo, bidezko eta kalitatezkoaren alde



ETORKIZUNA ERAIKITZEN DUGU
HEZKUNTZA
gure tresna



Etorkizuna eraikitzen dugu



Garapenerako Hezkuntza mundu globalizatuaren ulermena errazten duen hezkuntza-prozesua da, jarrera kritikoa eta errealitatearekin konprometua sortzera bideratuta dagoena, herritar global ahaldundua, aktiboa, gai kolektiboez arduratua eta justizia sozialean, ekitatean eta solidaritatean oinarritutako gizarte-eredu berriak sortzen dituena.

GIH 4-Hezkuntza 2030en inplikazioak hobeto ulertzeko, beharrezkotzat jotzen dugu helburu honen enuntziatuan erabiltzen diren kontzeptu batzuk argitzea: kalitatezko hezkuntza, hezkuntza inklusiboa eta bidezko hezkuntza.

Kalitatezko Hezkuntza

Hezkuntza funtsezko pieza da Garapen Iraunkorreko Helburu gehienak gauzatzeko. Pertsonak kalitatezko hezkuntza jaso dezaketenean, pobrezia ziklotik ihes egin dezakete; beraz, hezkuntzak desberdintasunak murrizten eta genero-berdintasuna lortzen laguntzen du.

Mundu osoko pertsonak ere ahalduntzen ditu, bizimodu osasuntsuagoa eta jasangarriagoa izan dezaten. Hezkuntza funtsezkoa da pertsonen arteko tolerantzia sustatzeko ere, eta gizarte baketsuagoak sortzen laguntzen du.



Inor kanpoan utzi gabe



Hezkuntza inklusiboa

Hezkuntza inklusiboak ikasle guztiak desberdinak direla abiapuntutzat hartzen du, pertsona bakoitzak ikasteko ezaugarri, gaitasun eta behar desberdinak dituela, eta hezkuntza-sistemek kontuan hartu behar dutela eta errealitate horri behar bezala erantzuteko antolatu eskola-unibertsitate osoa.



Hezkuntza inklusiboaren helburua, beraz, komunitate bateko ikasle guztiak eskola berean elkarrekin ikastea da, beren ingurune soziala, jatorri-kultura, sexua, etnia edo gaitasun fisiko, intelektual eta sentsorialak edozein izanda ere, sartzeko baldintza berezirik gabe eta edozein motatako hautaketa- edo diskriminazio-mekanismoak gabe.

Ekitatezko Hezkuntza

Hezkuntza-ekitateak ikasle bakoitzaren desberdintasunen eta beharren arabera heztea da, baldintza ekonomikoak, demografikoak, geografikoak, etikoak edo generokoak ikaskuntzarako oztopo izan ez daitezzen.

Ekitatea eta berdintasuna ez dira gauza bera. Berdintasunaren helburua da pertsona bakoitzak tratua jasozea, eta ekitateak, berriz, bere gain hartzen du pertsona desberdinek bakoitzak bere laguntza mota behar duela arrakasta lortzeko. Ekitatea, beraz, ikasleei ematen zaientzat tratua berezia da, haien zirkunstantzien eta ezaugarrien arabera, oztopoak eta bidegabekeriak ezabatzeko.



Inor atzean utzi gabe



Neskak eta emakumeak

Nahiz eta munduko ia eskualde guztietan lortu den neska-mutilen matrikulazio-kopuru berdintsua lehen mailako eskolan, **Saharaz hegoaldeko Afrikan, landa-ingurune pobretuetan bizi diren nesken % 23k soilik amaitzen du lehen mailako eskola.**^[1]

Emakume gazteek hezkuntzaren arloan pairatzen dituzten desabantaila horiek berekin dakarte trebakuntza falta, eta ondorioz, lan-merkatuan sartzeko aukerarik eza.

Horregatik, genero-berdintasuna ezin da ulertu hezkuntzan eskolara joaten eta eskola amaitzen duten nesken ehunekoaren bidez bakarrik; eskuragarri egon behar du beti, etengabeko ikaskuntzak bizi produktibo eta beteaz gozatzeko aukerak zabaltzen baititu.



Dibertsitate funtzionala duten haurrak

Eskubide berberak izan arren, dibertsitate funtzionalari lotutako premia bereziak dituzten haurrak dira historikoki hezkuntza-sisteman baztertuen dauden taldeetako bat, eta herrialde askotan, ikasle horien portzentaje batek ez du inolako hezkuntzarik jasotzen, bereziki dibertsitate konplexuenak dituzten ikasleek.

Eskualde batzuetan, dibertsitate funtzionala izateak bitan baino gehiagotan murriztu ditzake eskolatzeko aukerak. Adibidez, Nepalen, eskolatu gabeko haurren % 85ek inolabaiteko dibertsitate funtzionala du.^[2]

Espaniak berak ere huts egiten du puntu honetan; izan ere, formazio-adinean dauden dibertsitate funtzionala duten pertsonen % 20 gainerako gazteengandik bereizita daude hezkuntza bereziko zentro edota geletan.^[3]



[1] ONU Mujeres.
<https://lac.unwomen.org/es/>

[2] Campaña Mundial por la Educación.
<https://www.campaignforeducation.org/es/>

[3] Comité sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad de la ONU.
<http://www.convenciondiscapacidad.es/>